

Nafarroako Esaera Zaharrak. Madotz.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Madotz.

- 312 *Aos (aoz) eskatuta baño geiago eman dit.*
- 320 *Arraultze jatea, ardo edatea: arraultze jan da, ardo edan da.*
- 330 *Atorran ezin kabituz dago.*
Gizenegiz, edo zerbait esan naiez dagona.
- 353 *Bere ariari eutsiko zioz orrek.*
Ez duk bere iduritik aterako.
- 376 *"Dominus vobiscum" ez emen zen goseak il.*
Apezik ez dela goseak iltzen.
- 415 *Gau on, ta biar arte Jainkoak ones (onez).*
Apal-ondoan, oatzerakoan, orixe esaten giñuen sukaldetik ateratzean. Erdi-
lotan zijoanai atzentzen bazitzaion, aitik edo amak otsegin ta sukaldeko atera
berriz etorri eta ori esan bear giñuen. Sukaldekoak erantzuten: Biar arte!
Oitura ederra! aurrera ere irauñ baleza! Jainkoak ones, onez = Jainkoak nai
badu, Jainkoa lagun, Jainkoak onik gauzkala...
- 421 *Gosik dagonak, begik erne.*
- 427 *Gure aittaren poza, etxean ikustean gaztain-morkotsa.*
- 502 *Orixo duk ba kolkoan daukena besteri ematea.*
Nork berak asmatua besteri ezartzea edo eranstea.
- 552 *Mañana, domingo,*
arraultze gorringo,
tipule ta gatza,
Martin kalabaza.
- Jostaketan kantatzen direnak.
- 552 *Eperrak kantatzen du*
Goizean intzetan:
ez adilla fiatu
gizonen itzetan.
- Jostaketan kantatzen direnak.

552 *Gure etxean atso bi, biak elkar iduri;
batak ditu eun urte, besteak eun ta bi;
batak nai du monja sartu, besteak josten ikasi.*

Jostaketan kantatzen direnak.

552 *Talo, talo txin! Ator etxera, Matxin!
talo bat ze(g)ok adarrean
bere alkitto nabarrean
txirrin-pun, txirrin-pun
aurtxo onen matallean*

Jostaketan kantatzen direnak.

302 *Aixei (aiseari) eman zaio jendea.
Biziera arin lasaiera jotzen du.*

1500 *Langille ona(r)i, zor zaio sarii (saria).*